

## Airbag filmaren 25. urteurrena

[Vital Fundazioa Kulturunea](#)

[A Aretoa](#)

2022ko uztailearen 8a

20:00etan

Sarrera librea edukiera bete arte



**Vital Fundazioak** 'Airbag' filmaren 25 urteurrena ospatuko du, bertsio luze baten proiektioarekin eta protagonisten presentziarekin osteko solasaldi batean. Making of-aren material argitaragabea ere proiektatuko da eta filmaketarekin lotutako objektuen erakusketa bat egongo da, orain arte ikusgabeak.

### Airbag

Duela 25 urte Juanma Bajo Ulloa zinemagileak (Vitoria-Gasteiz, 1967), 'Airbag' estreinatu zuen, bere filmografiaren hirugarren titulua, film luzeen zuzendari lanetan. Filma aurrekaririk gabeko arrakasta komertzial bihurtu zen: 2.500.000 ikusle eraman zituen aretoetara, 1.200 milioi lortu zituen txarteldegian (garai bateko pezetatan) eta ordu arte gehien ikusitako ekoizpen espainiarra izan zen.

Espiritu urratzaile nabarmena duen filma, umorez, parodiaz, gehiegikeriaz eta gagez betea. Garaiko gazte balaunaldi oso batekin konektatzea lortu zuen, eta jendea harrিতuta utzi zuen estilo, erritmo eta hizkuntza zinematografiko apurtzaile baten eskutik.

# Proiektzioa

Proiektzioa filmaren bertsio luze bat izango da, aurretik zinema-areto batean ikusi gabeko 8 minutuko metrajearekin. Bertan izango dira protagonistetako batzuk, eta oroitzapenezko ekitaldia amaitzeko **solasaldi** bat egingo dute:

- Bajo Ulloa (dzuzendaria)
- Karra Elejalde eta Gorka Aguinagalde (aktoreak)
- Bingen Mendizabal (filmeko musikaren arduraduna)

Vital Fundazio Kulturuneako hallean, filmarekin zerikusia duten piezen erakustaldi batez gozatzeko aukera izango dute: filmaketaren, filmaren eta hainbat bitxikeriaren irudiak digitalean, parekorik ez duen fotokromo jokoak, sustapen-materiala, kamisetak, posterrak edo zuzendariak filmatzean erabilitako jatorrizko klaketa.